



ERABILERA LAGATZEKO KONTRATUA

Donostian, 2018ko azaroaren 23an.

ELKARTU DIRA

ENEKO ETXEBERRIA BEREZIARTUA jauna, Azpeitiko Udaleko alkate-lehendakaria, Udaltzarraren 2018 uztailaren 3ko agiri hau sinatzeko baimendua.

MAITE PEÑA LOPEZ andrea, Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean eta ordezkartzen, Diputatuen Kontseiluaren 2018ko azaroaren 13ko erabakiaz agiri hau sinatzeko baimendua.

Bi aldeek erabilera dohainik lagatzeko kontratua sinatzeko ahalmen nahikoa aitortzen diote elkarri, eta aurrekari hauek hartzen dituzte kontuan,

AURREKARIAK

I.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kudeaketa Estrategikorako 2015-2019 Planaren xedeen artean, ongizatearen eta kohesio sozialaren eredua indartzea dago. Horretarako, helburu espezifiko gisa proposatzen du Gipuzkoako gizarte zerbitzuen sare publikoko eskaintza gizarte-beharren bilakaerara egokitzea eta lurralde oreka lortzea.

Bestalde, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapak Gipuzkoako errealitatera ekartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko 2015-2018 Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak ezarritako plangintza irizpideak, eta, halaber, zerbitzuak, nola hedatu proposatzen du, 2019an

CONTRATO DE CESION DE USO

En San Sebastián, a 23 de noviembre de 2018

REUNIDOS

Don ENEKO ETXEBERRIA BEREZIARTUA, actuando en su condición de Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Azpeitia, facultado para este acto en virtud del Acuerdo del Pleno Municipal, en sesión de 3 de julio de 2018.

Doña MAITE PEÑA LOPEZ, diputada foral del Departamento de Políticas Sociales, actúa en nombre y representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, facultada para la formalización del presente documento en virtud de acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 13 de noviembre de 2018.

Ambas partes intervinientes se reconocen capacidad legal bastante para otorgar el presente contrato de cesión gratuita de uso, que para mayor inteligencia inician con los siguientes,

ANTECEDENTES

I.- Entre los objetivos estratégicos del Plan Estratégico de Gestión de la Diputación Foral de Gipuzkoa 2015-2019 se encuentra el de fortalecer el modelo de bienestar y cohesión social. Para ello, se propone como objetivo más específico el de adecuar la oferta de la red pública de recursos sociales de Gipuzkoa a la evolución de las necesidades sociales y lograr su equilibrio territorial.

Por otra parte, el Mapa de Servicios Sociales de Gipuzkoa traslada a la realidad de Gipuzkoa los criterios de planificación establecidos en el Plan Estratégico de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2015-2018 y propone cómo desplegar los servicios

orain dagoen arreta estalduaren mailari eusteko. Mapan aurreikusten da arreta premiak gehitu egingo direla, hainbat faktorerengatik, eta horien artean dago desgaitasun psikikoen inzidentzia areagotuz joango dela.

II.- Testuinguru horretan, beste ekimen batzuen artean, desgaitasun psikikoa duten pertsonentzako hainbat ekipamendu sortzeko beharra dago Azpeitian, Urola-Kostako eskualdean. Zehazki, asmoa da eguneko zentroa, zuzkidura-bizitokia eta desgaitasun psikikoari loturiko beste baliabide batzuk eskaintzen diren esparru bat sortzea.

Ildo horretan, 2018ko martxoan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua Azpeitiko Udalari zuzendu zitzaion, hiru lokalen erabileraren lagapena eskatzeko, horietan adierazitako ekipamenduak ezartzeko.

Zehazki, jarraian zehazten diren Azpeitiko Udalaren lokalak honako erabilera hauetarako lagatzea proposatu zuen:

1.- Loiolako Ignazio Etorbideko 65 eta 67. zenbakietako portaletako beheko solairuan kokaturiko gizarte lokala, eraikitako 505,50 m² dituen, desgaitasun psikikoa duten pertsonentzako eguneko zentroa jartzeko.

2.- Loiolako Ignazio Etorbideko 81 eta 83. zenbakidun portaletako beheko solairuan kokaturiko gizarte lokala, eraikitako 513 m²-ko azalera duena, zeina ES4, ES5 eta ES6 gisa identifikatutako hiru lokalez osatua dagoena, desgaitasun psikikoa duten pertsonentzako zuzkidura-bizitokia jartzeko.

3.- Loiolako Ignazio Etorbidean 75 eta 77. zenbakietan dagoen BDOS eraikineko beheko solairuan kokaturiko gizarte lokala, eraikitako 224 m² dituen, desgaitasun psikikoa duten pertsonentzako beste baliabide batzuk jartzeko.

Lokalei eman nahi zaien erabilera komunitate-ekipamenduaren erabilerarekin parekatu daiteke, izaera asistentzialaren modalitatean, Plan Orokorraren 9. artikuluan jasoa datorrenaren arabera, eta baimenduta daude Plan Orokorrean, hain zuzen "Izarra" 14 HEn, A20 "Eraikuntza Intentsiboko Bizitegi Zona" moduan kalifikatutako lurretan.

para mantener en el horizonte 2019 el nivel de cobertura actual de atención. En dicho mapa, se prevé que las necesidades de atención van a ampliarse con motivo de diversos factores, entre los cuales está la mayor incidencia de las discapacidades psíquicas.

II.- En este contexto, entre otras iniciativas, se requiere la creación de diversos equipamientos para personas con discapacidad psíquica en Azpeitia, en la comarca de Urola-Kosta. En concreto, se pretende implantar un centro de día, un alojamiento dotacional, y un espacio en el que prestar otros recursos relacionados con la discapacidad psíquica.

En ese sentido, el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa se dirigió en marzo de 2018 al Ayuntamiento de Azpeitia para solicitar la cesión de uso de tres locales, en los que establecer los señalados equipamientos.

En concreto, propuso destinar los locales propiedad del Ayuntamiento de Azpeitia que se detallan a continuación a los siguientes usos:

1.- Local social de 505,50 m² construidos, ubicado en la planta baja de los portales números 65 y 67 de Loiolako Ignazio Etorbidea, con destino a centro de día para personas con discapacidad psíquica.

2.- Local social de 513 m² construidos, compuesto por tres locales, identificados como ES4, ES5 y ES6 ubicados en la planta baja de los portales números 81 y 83 de Loiolako Ignazio Etorbidea, para alojamiento dotacional para personas con discapacidad psíquica.

3.- Local social de 224 m² construidos, ubicado en la planta baja del edificio BDOS del bloque construido en Loiolako Ignazio Etorbidea números 75 y 77, que se utilizará para otro tipo de recursos para personas con discapacidad psíquica.

El uso que se plantea para los locales puede considerarse asimilado al uso de equipamiento comunitario, en la modalidad asistencial, según se establece en el artículo 9 del Plan General, lo cual está permitido en el Plan General, en concreto, en el suelo calificado como zona A20 "Parcelas residenciales de edificación intensiva".



III.- Foru Aldundiaren eskakizunari erantzunez, Udaltzatzen, 2018ko uztailaren 3ko osoko bilkuran, adierazitako lokalen erabilpena Gipuzkoako Foru Aldundiari dohainik lagatzeko akordioa onartu zuen, zenbait baldintza jarrita, desgaitasun psikikoa duten pertsonentzako ekipamenduak ahalbideratzeko. Hori guztia, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen eta Toki Erakundeen Ondasunen Arautegia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan adierazitakoari jarraiki.

IV.- Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluaren 2018ko azaroaren 13ko Erabakiaz, onartu egin du lokalak dohainik erabiltzeko eginiko lagapena, 1996ko uztailaren 9ko 8/1996 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondarearenak, xedatutakoari jarraiki.

Horiek horrela, bi aldeek agiri honetan jasotzen den erabilera dohainik lagatzeko kontratua sinatzen dute, jarraian azaltzen diren klausulen arabera,

KLAUSULAK

Lehena.- Lagapenaren xedea.

1.1. Azpeitiko Udalak dohainik lagatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta Aldundiak onartu egiten du, jarraian deskribatzen den Loiolako Inazio etorbideko 65 eta 67. zenbakietako atarietan kokaturiko lokalaren erabilera, desgaitasun psikikoa duten pertsonentzako ekipamendu bat ezartzeko helburuarekin:

Deskripzioa: Eraikineko hirurogeita bost eta hirurogeita zazpi zenbakiko atariaren BEHEKO SOLAIRUAN dagoen gizarte-lokala, AZPEITIKO LOIOLAKO IGNAZIO ETORBIDEKO hirurogeita hiru, hirurogeita bost eta hirurogeita zazpi zenbakiez adierazia. Lokalak bostehun eta bost metro eta berrogeita hamar dezimetro karratuko ($505,50 \text{ m}^2$) azalera eraikia du, eta laurehun eta hirurogeita hamasei metro eta hogeita hamar zentimetro karratuko ($476,30 \text{ m}^2$) azalera erabilgarria ditu.

III.- En respuesta a la solicitud de la Diputación Foral, el Ayuntamiento de Azpeitia, en sesión plenaria de fecha 3 de julio de 2018, ha acordado la cesión de uso gratuita de los locales, con ciertas condiciones, para posibilitar la implantación de los citados equipamientos para personas con discapacidad psíquica, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 33/ Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas y el Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

IV.- Por su parte, la Diputación Foral de Gipuzkoa, en virtud de Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 13 de noviembre de 2018, ha aceptado la cesión gratuita de uso de los locales, de acuerdo con lo establecido en la Norma Foral 8/1996, de 9 de julio, de Patrimonio del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En virtud de lo expuesto, ambas partes otorgan el correspondiente contrato de cesión gratuita de uso contenido en el presente documento y que someten a las siguientes,

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto de la cesión.

1.1. El Ayuntamiento de Azpeitia cede con carácter gratuito a la Diputación Foral de Gipuzkoa, que acepta, el uso del local sito en portales números 65 y 67 de Loiolako Inazio Etorbidea que se describe a continuación, para la implantación de un equipamiento para personas con discapacidad psíquica:

Descripción: Local social ubicado en la PLANTA BAJA de los portales números sesenta y cinco y sesenta y siete del edificio señalado con los números sesenta y tres, sesenta y cinco y sesenta y siete de LOIOLAKO IGNAZIO ETORBIDEA en AZPEITIA. Tiene una superficie construida de quinientos cinco metros cincuenta decímetros cuadrados ($505,50 \text{ m}^2$) y útil de cuatrocientos setenta y seis metros treinta decímetros cuadrados ($476,30 \text{ m}^2$).

Mugak: Barruko plazatik sartuta: eskuinean eta ezkerrean, hirurogeita bost eta hirurogeita zazpi zenbakiko atariak eta eraikinaren fatxadak; hondoan, eraikinaren fatxada; eta atzealdean, hirurogeita bost eta hirurogeita zazpi zenbakiko atariak, eraikinaren fatxadak eta barruko plazara igarotzeko bidera ematen duten eraikin-hormak.

Komunitateko kuota: Jabetza Horizontalean % 6,37ko partaidetza-ehunekoa dauka.

Inbentarioko kodea: 1.1.00077.E.01.00.

Erregistroko datuak: Azpeitiko Jabetza Erregistroan inskribatua (2110 Liburukia, 321 Liburua, 15. Orria, 16935 Finka, 1. inskripzioa).

1.2. Lagapena lokalaren erabilerara mugatzen da. Haren jabetza eskubideak, beraz, Azpeitiko Udalaren esku jarraitzen du.

Bigarrena.- Xedea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak desgaitasun psikikoa duten pertsonentzako ekipamendu bat ezartzeko soilik erabiliko du lagatako lokala, zehazki, eguneko zentro bat jartzeko.

Hirugarrena.- Epea.

Lagapenaren iraupena hogeita (20) urtekoa da, kontratu hau sinatzen den datatik hasita, zazpigarren eta zortzigarren klausuletan jasotako iraungitzeko arrazoiak gertatzen ez diren bitartean.

Laugarrena.- Egokitzapen-lanak.

4.1. Gipuzkoako Foru Aldundiak desgaitasun psikikoa duten pertsonentzako ekipamendua sortzeko eta zerbitzua jartzeko behar diren lanak egingo ditu, eta horretarako, Udalaren eskumenekoak diren baimenak tramitatu eta lortu beharko ditu (obra proiektuak, jarduera baimena etab.).

Linda: Entrando desde la plaza interior: derecha e izquierda, portales números sesenta y cinco y sesenta y siete y fachadas del edificio; fondo, fachada del edificio; y espalda, portales números sesenta y cinco y sesenta y siete, fachadas del edificio y muros del edificio a galerías de paso a plaza interior.

Cuota de comunidad: Tiene un porcentaje de participación del 6,37 % en la Propiedad Horizontal.

Código inventario: 1.1.00077.E.01.00.

Datos registrales: inscrito en el Registro de la Propiedad de Azpeitia (Tomo 2110, Libro 321, Folio 15, finca 16935, inscripción 1ª)

1.2. La cesión se limita al uso del local. El Ayuntamiento de Azpeitia mantiene el derecho de propiedad sobre el mismo.

Segunda.- Destino.

La Diputación Foral de Gipuzkoa destinará el local cedido exclusivamente a la implantación de un equipamiento destinado a personas con discapacidad psíquica, en concreto, a la ubicación en el mismo de un centro de día.

Tercera.- Plazo.

La duración de la cesión será de veinte (20) años a contar desde la fecha de formalización del presente contrato, en tanto no concurran las circunstancias de extinción recogidas en las cláusulas séptima y octava.

Cuarta.- Obras de acondicionamiento.

4.1. La Diputación Foral de Gipuzkoa realizará las obras necesarias para establecer el equipamiento destinado a personas con discapacidad psíquica e implantar el servicio correspondiente, y para ello deberá tramitar y obtener los permisos de competencia municipal (proyecto de obras, licencia de actividad etc.).



4.2. Halaber, edozein esku-hartze edo lokalaren barne banaketan aldaketak egin aurretik udal baimena eskuratu beharko da.

4.3. Dena den, egiten diren lanak jabetzaren onurarako izango dira, inolako kalte-ordainerako eskubiderik gabe.

Bosgarrena.- betebeharrak.

Lagapen-hartzailearen

Lagapen-hartzailearen betebeharrak hauek izango dira:

- Lokalari aderazitako erabilera ematea, behar bezalako arduraz eta arretaz; eta gaizki erabiliz gero, izandako kalteei erantzutea.
- Lokalen erabilpenean eta aprobetxamenduan hirugarrenen aurrean erantzutea, Udala edozein erantzukizunetatik salbuetsita.
- Bere gain hartzea garbitasun, zabor bilketa, argindar, ur, gas eta telefono gastuak eta baita lagatako lokalaren erabileratik sortutakoak ere.
- Lagatako lokalen ohiko konponketak egitea, egoki erabiltzeko moduan egote aldera.
- Altzariak, ekipamendua eta, oro har, lokalaren edukia aseguratzeko. Edukitzailea Udalak aseguratu behar du.
- Jabekideen komunitateari dagozkion gastu arruntak ordaintzea.

Seigarrena.- Beste betebeharrak eta muga batzuk.

Jardueraren inguruko betebeharrak eta erabilerak:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren -lagapen hartzailearen- ardura osoa izango da

4.2. Asimismo, cualquier otra intervención posterior o modificación de la distribución interna del local deberá contar con la oportuna autorización municipal.

4.3. En todo caso, las obras realizadas quedarán en beneficio de la propiedad, sin derecho a indemnización alguna.

Quinta.- Obligaciones de la cesionaria.

Serán obligaciones de la cesionaria:

- Utilizar el local para el uso descrito, con la debida diligencia y cuidado, respondiendo de los daños y deterioros que se ocasionen en los mismos por el mal uso.
- Responder ante terceros del uso y disfrute del local, exonerando de cualquier tipo de responsabilidad al Ayuntamiento.
- Asumir los gastos de limpieza y recogida de basuras, energía eléctrica, agua, gas, teléfono, y cuantos otros se deriven o tengan su causa en la utilización del local objeto de la cesión de uso.
- Efectuar las reparaciones normales del local objeto de cesión a fin de conservarlo para su normal estado de uso.
- Asegurar el mobiliario, equipamiento y, en general, el contenido de local, correspondiendo asegurar el continente al Ayuntamiento.
- Abonar los gastos ordinarios correspondientes a la comunidad de propietarios.

Sexta.- Otras obligaciones y limitaciones.

Obligaciones y usos relativos a la actividad:

- Será responsabilidad de la Diputación Foral de Gipuzkoa -cesionaria- regular

desgaitasun psikikoa duten pertsonentzako zerbitzuak erregulatzea, eta horiek behar dituzten baliabideak bermatzea.

- Lagapen-hartzaileak ezingo ditu: lokala laga, erabilerak eskualdatu, edo kontratu honen bigarren klausulan ezarritako xedea ez den beste baterako ibili.

Aurrekoa hala izanik ere, ez da lagapen gisa hartuko lokalaren erabilpena zentroa kudeatu behar duenaren esku uztea, zerbitzua zeharka kudeatzen denean.

Zazpigarren.- Kontratua iraungitzat jotzeko arrazoiak.

7.1. Kontratua iraungitzat eta amaitutzat joko da, ezarritako iraupen epea amaitutakoan.

7.2. Horretaz gain, aurretiaz iraungi daiteke kontratua, ondoko arrazoiak direla-eta:

- Lagapenaren oinarri den zerbitzua ez jartzea.
- Lagatako lokala bigarren klausulan adierazitakoa ez den beste xede baterako erabiltzea, edo kontratu honetan ezarritako gainerako baldintzak ez betetzea.
- Erabilerak higiezinetan kalte larriak eragitea.
- Elkarren artean adostuta.
- Hiri-antolamenduaren aldaketa bat dela-eta eraikuntzaren erabilera aldatzea.
- Lagatako ondasuna desagertzea.
- Legez edo hitzarmenez aurreikusitako gainerako arrazoiak.

7.3. Ibilgetuan egindako inbertsioak Udalaren esku geratuko dira lagapena iraungitzen denean, iraungitze arrazoiak edozein delarik, ordainetan ezer eman behar izan gabe, zortzigarren klausulan xedatzen den kasua

los servicios dirigidos a las personas con discapacidad psíquica y garantizar los recursos que sean necesarios.

- La cesionaria no podrá a su vez ceder el local, transmitir su uso o destinarlo a un fin distinto del señalado en la cláusula segunda del presente contrato.

No obstante lo anterior, no se considerará cesión la habilitación que para la utilización del local se otorgue a la entidad encargada de la gestión del centro, en el caso de que el servicio sea gestionado indirectamente.

Séptima.- Causas de extinción del contrato.

7.1. El contrato se extinguirá y quedará concluido, una vez transcurrido el período de duración establecido.

7.2. Además, será causas de extinción de la cesión:

- La no implantación del servicio objeto de la cesión.
- Por el uso del local cedido para una finalidad distinta a la establecida en la cláusula segunda o el incumplimiento del resto de condiciones impuestas en el presente contrato.
- Por la utilización del local con grave quebranto del mismo.
- Por mutuo acuerdo.
- La modificación del destino del inmueble, fundamentado en una modificación de la ordenación urbana.
- Por desaparición del bien objeto de cesión.
- Las demás convencional o legalmente previstas.

7.3. Las inversiones de inmovilizado revertirán sin contraprestación al Ayuntamiento cuando se extinga la cesión, cualquiera que sea la causa de extinción, salvo el supuesto previsto en la cláusula octava.



gertatzen bada izan ezik.

Zortzigarrena.- Kontratua iraungitzat jotzeko beste arrazoi batzuk.

Interes publikoko arrazoiak direla-eta Azpeitiko Udalak lokalaren erabilera berreskuratzea beharrezkotzat jotz gero, erabilera lagapena iraungita geratuko da. Gipuzkoako Foru Aldundiak urtebeteko epea izango du lokala uzteko.

Kasu horretan, bi aldeek konpentsazio bat finkatuko dute ibilgetuan egindako inbertsioengatik, eraikinak izan duen balio handitzea eta hura erabilitako denbora kontuan hartuta.

Eta adostasunaren adierazgarri, bi aldeek agiri hau sinatzen dute bi aletan, hasieran adierazitako lekuan eta egunean.

**Azpeitiko Udalaren aldetik/
Por el Ayuntamiento de Azpeitia**

Sin.: / Fdo.: **Eneko Etxeberria Bereziartua**

Octava.- Otras causas de extinción del contrato.

Si sobrevinieran circunstancias de interés público que hicieran necesaria la recuperación del uso del local por parte del Ayuntamiento de Azpeitia, quedará extinguida la cesión de uso. A tal efecto la Diputación Foral de Gipuzkoa dispondrá de un plazo de un año para efectuar el desalojo del local.

En este supuesto se fijará por las dos partes una compensación por las inversiones de inmovilizado realizadas, conforme a la revaloración del edificio y el tiempo de utilización.

Y en prueba de conformidad firman ambas partes el presente documento por duplicado, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

**Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik/
Por la Diputación Foral de Gipuzkoa**

Sin. / Fdo.: **Maite Peña López**

